

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure enpresak komunikazio-sistema pertsonalizatu eta eskuragarrien inplementazioan arrakasta lortzeko, eta komunikazio arazoak dituzten pertsonen bizitzan eragin positibo sortzeko, funtsezkoa da funtsezko baliabide batzuk izatea. WAMU hasieratik eraikitzen ari garenez, funtsezko baliabide hauek ikusten ditugu gure balio-proposamena sortzeko, bezeroak lortzeko, haiekin loturak eraikitzeko eta diru-sarrerak sortzeko. Baliabide horiek hainbat motatakoak dira: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Lehenik eta behin **baliabide fisikoak** kontuan hartu behar dira, gure enpresaren eguneroko funtzionamendurako. Enpresa hasieratik sortuko dugu, baina oinarrizko baliabide batzuk ditugu, ordenagailuak eta mugikorrak, enpresa kudeatzeko eta eragiketak egiten lagunduko digutenak. Gainera, lanerako leku moldagarriak erabiliko ditugu, hasieran etxetik lanean arituko gara. Honi esker, gastuak murriztuta mantentzen ditugu, eta, aldi berean, lan-giro eraginkor eta malgua ziurtatzen dugu.



Baita ere kontuan hartuko dugun beste oinarrizko elementu bat, **baliabide intelektualak** dira, zerbitzu espezializatuak eta kalitate handikoak eskaintzeko aukera ematen digutenak. Gutako bakoitzak arlo batean zentratuko da, eta horrek gure bezeroen eskaera egokitutako metodo pertsonalizatu eta eraginkorrak sortzen laguntzen digu.

Giza taldearekin jarraituz, WAMU eraikitze oinarria da. Gure talde sortzailea, Adriana, Mireia, Weiba eta Udane barne hartzen dituen, inklusioarekin eta sarbidearekin konpromiso sendoak bultzatuta dago. Ezagutza tekniko eta espezializatuak ez ezik, lidergoan, antolakuntzan eta proiektuen administrazioan funtsezko gaitasunak ere ematen ditugu. Gainera, gure helburua da ekintzailatza sozialeko kanpoko aholkulari eta adituekin lankidetzan aritzea, gida estrategikoa emango digutelako eta gure gaitasun kooperatiboak eta kudeaketakoak indartzen lagunduko digute.



Azkenik, **finantza baliabideak** ezinbestekoak izango dira WAMUren bideragarritasuna bermatzeko. Hasierako etapan, gure aurrezki indibidualak erabiliko ditugu funtsezko gastuak estaltzeko. Gainera, gizarteratze eta irisgarritasun proiektuak babesten dituzten erakundeen kanpo finantzaketa eta diru laguntzak jasotzeko asmoa dugu.